

# Egungo Euskararen Hiztegia

—V—

[bertsioa: 2024-01-09]

## valentziar *izlag/iz* Valentziako herrialdekoa, Valentziako herrialdeari dagokiona; Valentziako herrialdeko herritarra.

Nebot izeneko **valentziar** mutil batekin elkartu behar duela esaten zidak. **Josu Zabaleta**

Caspetik etorria zen **valentziar** brigadier karlista bat preso zekarrela, Don Karlosen Estatu Nagusiaren aurrean azal zedin. **Koro Navarro**

Didac Ortega **valentziarrak** irabazi zuen igandean Aitzondo Klasikoko 3. ekitaldia, Asteasun. **Berria - Kirola**

XV. mendeko Vicent Ferrer **valentziar** santu ospetsuak. **Koldo Zuazo**

Bartzelonako atzoko aurkezpenen aurretik Herri **Valentziarrean** izan zen Martxelo Otamendi. **Berria - Harian**

Zirujau **valentziar** batek hogeita hamar urtetik gora daramatza anestesia kimikorik erabili gabe era guztietako ebakuntzak egiten. **Berria - Gaiak**

Lagun gehienak **valentziarrak** egin nituen, Alacantekoak zehatzago esateko. **Joxerra Garzia**

Generalitateak etxebizitza duin bat izatearen eskubidea bermatuko die **valentziarrei**. **Berria - Mundua**

Hamabi batailoiz zeuden, azkeneko erabakiak jaso zain: 6 kastillano, 2 kantabriar, 3 **valentziar**, eta asturiar bakar bat. **Txillardegi**

Sortzez **valentziarra** zen, baina Bilbon bizi izan da urte gehienetan. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kultura valentziarrean** (3)

## valentziera *iz* katalanaren aldaera, Valentziako herrialdean mintzatzen dena.

Herrialde Katalanetako ordezkaria, Josep Romeu, katalanaren eta **valentziarrean** artean dagoen arazoak mintzatu zen. **Berria - Euskal Herria**

Hamar dira jada **valentziera** eta katalana bat direla dioten ebazpenak. **Berria - Mundua**

Europako Konstituzioaren katalanezko eta **valentzierazko** itzulpenak. **Berria - Mundua**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**katalan valentziera** (3); **katalana eta valentziera** (7); **valentziera eta katalana** (5); **valentziera hizkuntza** (6); **valentziera katalanaren** (3); **valentziera katalanetik** (3)

## valenziano *izlag/iz* valentziarra.

Hor, hondarribitar guziak mantzokara bilduta, **valenzianoek** ohi dagiten mairu eta kristau arteko liskar aizun amaneratu bezalako bat egin dezakezue. **Patziku Perurena**

## valladolidar *izlag/iz* Valladolideko, Valladolidi dagokiona; Valladolideko biztanlea.

Espazioetako batean Kyra amerikarra eta bere senarra, Rafa **valladolidarra** bizi dira. **Harkaitz Cano**

## valletar *izlag/iz* Maltako hiriburu Valletakoa, Valletari dagokiona; Valletako biztanlea.

Maltako bandera zuri-gorriarekin batera Europako urdin-horia ere bere egingo dute **valletarrek**, baina oraingoz eszeptizismo handia dago. **Berria - Mundua**

vals ik **bals**.

## vaporetto *iz* Venezian, garraio publikoan erabiltzen den ibaiontzia.

Jendez gainezka daude **vaporettoa** hartzeko geltokia eta kanal-alboetako igarobideak. **Anjel Lertxundi**

Ez daukat **vaporetto** bat hartu beharrik ere, hotela geltokitik bi pausora baitago, Santa Maria in Nazaret eliza ondoko kale estu luze batean. **Anjel Lertxundi**

Viscontiren Heriotza Venezian filmean Dick Bogarde aktorea erdi etzanda dago **vaporetto** batean. **Anjel Lertxundi**

## varsoviar *izlag/iz* Varsoviakoa, Varsoviari dagokiona; Varsoviako biztanlea.

Polka **varsoviarrean** pieza bizkorra entzuten da. **Xabier Paya**

## vatikanista *izond/iz* Vatikanoko politikaren aldekoa.

Agnostikoak negarrez, irudiak, giroak eta esatariaren narrazioak (benetako **vatikanista** militanteak hedabide publikoetan) emozioa piztea lortuta. **Iñigo Aranbarri**

## vatikanozale *izond* Vatikanoren zalea.

Italiako emakume-jantzi luxuzko sentsualak eramaten omen zizkien Alemaniako emakume aurreiritzi gabeei; Alemaniako gerruntze luterano estuenak, Italiako emakume **vatikanozaleenei**. **Anjel Lertxundi**

vatio ik **watio**.

velodromo ik **belodromo**.

**venetoar** *izlag/iz* Italiako eskualde Venetokoa, Venetori dagokiona; Venetoko herritarra.

Natalinaren ondoren, gure amak beti neskame **venetoarrak** izan zituen. **Fernando Rey**

**veneziar** (*orobat **beneziar** g.er.*) *izlag* Veneziakoa, Veneziaari dagokiona; Veneziako biztanlea.

Vitelli izeneko **veneziar** artista batek egina iritzi nion. **Josu Zabaleta**

Haren aita François Zola ingeniari **veneziarra** edateko ura hirira eramateko kanal bat eraikitzen ari zelako. **Karlos Zabala**

Esterrek, Korfu-n **veneziar** familia batean jaiotako andre amultsu eta asaldagaitz hark. **Juan Garzia**

Bankuen egitura ahula zen oraindik ere; horren lekuko da nola **veneziar** bankuek kiebra jo zuten, batak bestearen ondoren, XIV. mendean. **Koro Navarro**

Bizigarrien merkataritzaren **veneziar** monopolioa [...] betiko hautsia geratu zen horrela. **Koro Navarro**

Gustura ibili zen Stephen marrazten, eta san Markos katedrala, Ducearen Jauregia eta **veneziar** kulturako monumentu nagusiak papereratu zituen. **Xabier Olarra**

Musuoker izan zen hurrena, pirata kortsikarren buruzagia, galera **veneziar** baten kanoikadak aurpegia desitxuratu ziolako halaxe deitua. **Felipe Juaristi**

Bi **veneziar** ateen arteko plazan. **Josu Zabaleta**

Mahaitik kristal **veneziarreko** kopa bat hartu eta liluratuta begiratu zion. **Ander Irizar**

Leihoetan sareta **veneziarrak**, bazterretan lorontziak eta airean ke zaharra zituen egongela batean. **Oskar Arana**

Bufanda gorri handi bat zeraman samaren jiran, mutur bat konkorretik zintzilik zuena, kapa **veneziar** baten hegalarren gisan. Une hartan zabaldu ziren orobat Indiarako eta Txinarako lehorreko merkataritza-bideak, Marco Polo **veneziarren** kontakizunak deskribatzen duen bezala. **Karlos Zabala**

*Il Cagalibri* deitzen diote **veneziarrek** eskultura honi. **Anjel Lertxundi**

**Veneziarrek** turkiarren herrialdetik egina zuten ordura arte merkataritza. **Iñaki Iñurrieta**

Zazpigarren egunerako idatzia zuen **veneziarrak** Dionisok eskatutako musika. **Felipe Juaristi**

Nortzuk diren **veneziar** petoak asmatzen saiatu edo haien jarduna entzun nahi duenak turisten bideetatik apartatu behar du. **Anjel Lertxundi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atorra veneziarra** (3)

**veneziera 1** *iz* antzinako dialekto italikoa.

Italian bere senide zituen oskoera eta unbriera dialekto italikoekin borrokatu behar izan zuen, eta mesapiera eta **veneziera** iliriar dialektoekin. **Iñaki Mendiguren**

**2** italiararen dialektoa, Veneton hitz egiten dena.

Ostera figura konpondurik, zer ordu zen begiratu, **venezieraz** birao egin, eta gelara itzultzeko tenorea zela esan zigun. **Juan Garzia**

venezolar ik **venezuelar**.

**venezuelar** (*orobat **venezolar** g.er. eta **venezuelatar** g.er.*) **1** *izlag/iz* Venezuelakoa, Venezuelari dagokiona; Venezuelako herritarra.

Aquiles Machado **venezuelar** tenorrarekin batera. **Berria - Kultura**

Ni han nabil, **venezuelar** atsolitaz dioen bezala, "mas perdido que cucaracha en baile de gallinas". **Pako Aristi**

10.000 sendagile kubatarri esker, 11.000 klinika sortu dituzte auzo txiroetan, eta bitartean milaka **venezuelar** medikuntza ikasketak egiten ari dira, sendagile kubatarrek beren herrira itzul ahal izan daitezen. **Berria - Mundua**

Telesail **venezuelar** horietako bat ematen du berriz ere. **Antton Olano**

Iraultza **venezuelarra** baketsua eta demokratikoa da, herriak bide hori nahi duela erakutsi duelako. **Pako Aristi**

Gobernu **venezuelarrak** baduela nolabaiteko nortasun bat, beste gobernu batzuek izan ez dutena. **Pako Aristi**

Herri **venezuelarraren** gaurko garaipen handia indarkeriaren, kolpismoaren eta faxismoaren aurkakoa izan da. **Berria - Mundua**

Entzuna nuen kalean: **venezuelarrei venezuelar** izateko harrotasuna sentiarazi dien iraultza dela Chavezena. **Pako Aristi**

**Venezuelarrari** ez zaio hainbeste inporta konponbide zehatzak egotea, hari komunikatzea gustatzen zaio, presidentek gauzak argi azaltzea, hitz egitea, egoera planteatzea. **Pako Aristi**

Kaudillo horrek bultzatutako konstituzioak **venezuelarren** %70eko babesa jaso zuen. **Txema Ramirez de la Piscina**

Baina **venezuelarrak** ez gara lau milioi, 26 milioi gara. **Berria - Mundua**

Hamaika ikusteko jaoak dira **venezuelarrak** ere. **Pako Aristi**

Eskez binaka, emaitza berberekin txapeldun geratu ziren Jauregi-Larrinaga, Urzelai-Lacasa **venezuelarren** aurka. **Berria - Kirola**

venezuelatar ik **venezuelar**.

**verdiano** *izond* verdiarra.

Francisco Casanovak [...] ahots benetan ederra dauka eta tenore **verdiano** izaera berriz ere erakutsi zuen. **Berria - Kultura**

**verdiar** *izond* G. Verdirena, Verdi dagokiona.

Zabalpen argiko ahotsari, erregularitasuna eta kantu lerro **verdiarra** gaineratu behar zaio. **Berria - Kultura**

**verismo** *iz* Italian, XIX mendearen amaieran garatu zen mugimendu estetikoa, frantziar naturalismotik eratorria eta eskuarki Italiako gizarte arazoek diharduena.

Obra honetan, ordu arte jarraitutako **verismoaren** bidea utzirik - **verismoak** gizona bere errealitatea ezagutu ahal izateko gai dela uste izatea eskatzen baitu-, lehenengo

aldiz pertsonaiaren gaia lantzen du Pirandellok. Josu Zabaleta  
*I Vecchi e i Giovani* (1908-1909, *Zaharrek eta gazteak*) eleberria berriro **verismoaren** gaietara eta tekniketara itzultzea izango da. Josu Zabaleta

Baina filmak alde duen **verismo** zurrun hori, kalterako bihurtzen da amaierarako. Berria - Kultura

Bilbon ikusgai dauden erliebeek bi mugimenduen ezaugarriak azaltzen dituzte: batetik, tradizioetik ikasitako dramatismoa eta urre kolorearen erabilpen sinbolikoa; bestetik, Italiatik jasotako paisaien erraztasuna eta **verismoa**. Berria - Kultura

---

vermouth ik **bermut**.

---

vermut ik **bermut**.

---

**versta** iz Errusiako antzinako bide neurria, 1066,8 metroren baliokidea.

Beste **versta** bat ibili behar duzu oraindik, daramazun bidetik. Jose Morales

Zaldiek ordu erdi baino ez zuten behar izan hamar **verstak** egiteko. Jose Morales

Gabarra ur lasterraren erdi-erdian zegoen [...] eta uretan behera zihoan bi **versta** orduko eginez. Karlos Zabala

Bost **verstako** bidea besterik ez zegok, aitaren batean helduko gaituk. Jose Morales

Mikel Strogoffek Moskutik Irkutskera ibili behar zuen bidea bost mila eta berrehun **verstakoa** zen. Karlos Zabala

Komunikazio elektrikoak baizik ez ditu lotzen Siberiako bi mugak, mendealdekoa eta ekialdekoa, 8.000 **versta** luze baino gehiago den hari baten bidez. Karlos Zabala

Lau **versta** zabal zen, zuhaitzak zituen inguru guztian. Jose Morales

Zenbaitetan pinu edo zedro oihan itzelak, ehun **versta** luze. Karlos Zabala

Leku hartan, ibaia **versta** erdi zen zabal. Karlos Zabala

**Versta** batera fabrika bateko burdinazko tximinia estua altxatzen zen zuhaitzen artean. Jose Morales

Inguru haietan, herrixkatik hamar **verstara**, jeneral bat bizi zen. Jose Morales

Bederatzi kopek **verstako**, eta eskupekoa gainera. Karlos Zabala

Hegan doaz **verstak**, hegan hurbiltzen zaizkizu merkatariak kibitketako gida-aulkietan eseririk, hegan doa basoa bidearen alde banatan. Jose Morales

---

**viagra** iz zakilaren erekzioa eta sexu jarduera akuilatzen dituen sendagaia.

Bost axola **Viagra** pilulatxoak izanda ere. Harkaitz Cano

Ipar Irlandako Queen's unibertsitateko zientzialarien esanetan, **Viagra** inpotenziaren kontrako botikak kalte egiten dio gizonen ugalkortasunari. Berria - Gaiak

Dena den, hori ere hasia dago "gure artean": sardexka ugariko ostatu batzuetako plateretan (aipa ditzagun Milan eta Paris, gutxienez), bezeroak hala aginduz gero, **viagra** edota koka nahasten dizkiete osagaiei. Edorta Agirre

Prozac eta **viagra**, uraren orde. Berria - Harian

---

**vianar** *izlag/hed* Vianakoa, Vianari dagokiona; Vianako herritarra.

Aspalditik zegoen, ordea, erortzeko zorian, eta bi bat urte lehenago, **vianarre** elizako erretaula, irudi eta baliozko pieza oro erretiratu zituzten bertatik. Anjel Lertxundi

---

**vibrato** iz ahotsean eta soka musika-tresnetan gertarazten den hotsaren ondulazio lasterra.

Welker baritonoak uhin luzeko **vibratoa** erakutsi zuen. Berria - Kultura

Lanak eskatzen duen bezala, espresibitatea **vibrato** eta legato-a) izan zen nagusi. Berria - Kultura

**Vibrato** zabal, goi tesitura zailean erraz zebilena. Berria - Kultura

Hasierako nostalgiazko esaldiak ondo lotu zituen, **vibrato**, portamento eta azken finean fraseatze txukunez beterik. Berria - Kultura

---

**victoriano** *izond* viktoriarra.

Denbora luzea generaman bide bakarti eta orbelaz estalitako batetik gora ibiltzen, noizbehinka etxe **victoriano** edo georgianoaren baten aurretik igarotzen ginelarik. Ramon Saizarbitoria

Deportatzen dutenean Klondike-ko bere "Lager"ean bizitzeko lapur bihurtzen den txakur **victoriano** eta darwiniano batena, hain zuzen, Oihanaren deiako Buck handiarena. Juan Garzia

---

victoriar ik **viktoriar**.

---

video ik **bideo**.

---

**vienar** (*orobat vienatar*) *izlag/iz* Vienakoa, Vienari dagokiona; Vienako biztanlea.

Hiru argazkiok **vienar** estiloko hiru kafetegitan hartuak dira. Anjel Lertxundi

Alois Riegl, **vienar** arte-historialaria, *Kunstwollen* ("arte-asmoa") kontzeptua sortu zuelako ezagutzen da batez ere, gaur egun. Josu Zabaleta

Margolana pintore **vienatar** batena zen, enperatrizarri ile uhintsuarekiko erretratua egin zionarena berarena. Xabier Olarra

Prerrafaeliten gaia nerabilen burutik kendu ezinik: haietako norbaitek, Millais-ek noski, Klimt **vienarra** -"emakumeen urrezko pintzela"- ekartzen zidala gogora. Ramon Saizarbitoria

Alma bezala austriarrak hirurak; Alma bezala **vienarrak** hirurak, Alma bezala Beethoven zaleak hirurak. Felipe Juaristi

Psikologo bat ere ekarri nuen, **vienarra** bera: Franz Kitchen doktorea. Felipe Juaristi

Odéoneko zerbitzarietako batek, Peter izeneko **vienar** zahar batek, ezagutu egin ninduen. Joxe Austin Arrieta

vienatar ik **vienar**.

**vietnamdar** *izlag/iz* Vietnamekoa, Vietnami dagokiona; Vietnameko herritarra.

Trapuzko andere txiki lirainak egiten egunean hamalau ordu lanean ari den langile **vietnamdar** haurduna. **Iñaki Heras**

Thi-Nho Vo emakume **vietnamdarraren** kasua berezia izan da. **Berria - Gaiak**

Ahoan bilorik gabe **Vietnamdarrak** kondatzen ditu amerikar soldadoen ganik jasan dituen gogorkeriak. **Herria**

Hiru milioi **vietnamdar** hil zituzten, eta berek 58.000 soldadu galdu zituzten. **Pello Salaburu**

Txinatarrak, **vietnamdarrak** eta pakistandarrak dira atzerritar gehienak. **Berria - Mundua**

Egunkariak esaten zuten iparramerikar ejertzitoak urtean hogeita mila gerra operazio egiten zituela Vietnamgo lurretan, eta **vietnamdarrek** errenditu beharko zutela azkenearako. **Joseba Sarrionandia**

**vietnamera** *iz* Vietnameko hizkuntza ofiziala.

Hizkuntza ofiziala **vietnamera** da, haatik hango 54 leinu desberdinek badute baktotxak beren mintzaira. **Herria**

**Vietnameraz** erabiltzen dira, besteak beste, beste kontsonante batzuen aldaera enfatiko gisa. **Lourdes Oñederra**

**vietnamita** *iz* multikopista-mota, serigrafiaren oso antzeko teknika baliatzen zuena.

Diktadura-garaiko **vietnamitetan** botatako paskinen bilduma harrigarria osatu dute Lazkaoko beneditarrek, frankismoaren zentsura aztertu du Torrealdaik. **Anjel Lertxundi**

COUn nengoela, zientzia fikziozko ipuin batzuk egin nituen, gaztelaniaz, institutuko aldizkarirako (**vietnamitaz** inprimatzen genuen aldizkari hura, eta ziur nago honezkero hauts bihurtuta egongo direla letra haiek guztiak). **Iban Zaldúa**

vikingo ik **bikingo**.

**viktoriar** (**18 agerraldi**, **4 liburutan**; orobat **victoriar 6 agerraldi**, **2 liburu eta 4 artikulutan**) *izond* Ingalaterrako Victoria erreginari, eta haren garaiari eta garaiko gizarteari dagokiona. ik **victoriano**.

**Viktoriar** garaiko klase ertain bertutetsuari. **Iñaki Mendiguren**

"Balio **viktoriarrak**" ohorezkoak dira ohorezko Ingalaterran. **Joxe Azurmendi**

Sexu heterosexual arruntaren ostean dagoen moralismo **viktoriarra**. **Askoren artean**

Emoziozko erreakzioek, "**viktoriar**" baikortasuna eta "spengleriar" ezkortasuna bezalakoek, froga gisa ez zuten indarrak. **Iñaki Mendiguren**

Irribarre egingo zuketean, keinu bihurri batez, jakin izan balute oroitzapen baten oroitzapenak egunen batean *A Dream of Fair Women* sortuko zuela **viktoriar** poeta baten irudimenean. **Iñaki Mendiguren**

Betegintzarre AB-k Matthew Arnold (1822-88) poeta eta kritikari **viktoriarra** aipatzen du. **Xabier Olarra**

**virgo** *iz* Zodiakoko konstelazioa; zodiakoaren seigarren zeinua; latinez 'birjina' esan nahi du.

Gero, Leotik **Virgora** iragan eta zeinu horren arroparen tolesturetara aurreratuz, laburtu egiten du bere orbita, eta Tauron zegoenean egiten zuen bidearekin berdintzen du bere ibiliaren neurria. **Santiago Iruretagoiena**

Beraz, ni **Virgo** naiz. **Xabier Paya**

**-Virgon** ibiliko da hurrena: liseriketako organoak, nerbioak, barea, area edo pankreas. **Pello Zabala**

vitamina ik **bitamina**.

**viterbotar** *izlag/iz* Italiako Viterboko, Viterbori dagokiona; Viterboko biztanlea.

**Viterbotar** guztiok, bestetik. **Juan Garzia**

-Jauna, zaindu ezazu ondo zeure gaztelu hau, laster etorriko baita hona traidore bat **viterbotarrek** bidalita, zu hiltzeko eta gazteluari su emateko. **Askoren artean**

**vitrioliko** *izond* erregaria. • *irud/hed*

-Umorea **vitriolikoa** da. **Karlos Linazasoro**

**vitruvianismo** *iz* Vitruvio antzinako arkitektoaren aldeko joera.

Ez da batere kasualitatea **vitruvianismoaren** gainbehera eta etxola primitiboaren teoria zalantzan jartzea, biak XVIII. mendearen bigarren erdialdean izan zen arkitekturaren printzipioen berrikuspun kritikoarekin batera gertatu izana. **Santiago Iruretagoiena**

**vitruviar** *izond* Vitruvio antzinako arkitektoari dagokiona.

Hori bezain egia da, Vitruvioren testuarentzat irudi horiek izango luketen ahalmen argitzaile horri buruzko sineskera konpartitu horrek aberastasun izugarritzko ondorioak izango zituela ondorengo tradizio **vitruviar** guztian. **Santiago Iruretagoiena**

vizkonde ik **bizkonde**.

**vodka 1** *iz* Errusian-eta, zekale edo garagar alez egiten den edari bizia.

**Vodka** egiteko Errusiako burnuak han zuen destilategi batean jarri zuten lanean. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Vodka** nahiz garagardoa aukeran. Edorta Jimenez

Ohiturari jarraiki, bisitariak eta etxeko jaunak kopa bana **vodka** edan zuten aurrena. Jose Morales

**Vodkari** hirugarren tragoa eman dio, eta azkenekoa izango dela erabaki du Oskarrek. Iban Zaldúa

Burtek zukua **vodkarekin** edan zuen kizaratik. Koro Navarro

**Vodkaren** kiratsa zerion. Koro Navarro

Bazirudien, beste hainbat nekazari siberiarren antzera, miseria **vodkan** ito ezinik erreko zuela bizitza. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 2 (izenondoekin)

Beatricek -ez nuen gutxiago espero- **vodka** hutsa eskatu dio, harri birekin. Iban Zaldúa

Destilatu gabeko **vodka** zakarraren usain ikaragarria zerion. Jose Morales

## 3 (hitz elkartuetan)

Zerbeza eta **vodka** zaporeko goma. -Hozkailuan bada **vodka** ttantta bat. Aingeru Epaltza

Egongelako apalategi horri berari begira ari zaio une honetan bertan, besaulkitik, **vodka** edalontzia eskuan. Iban Zaldúa

Halako batean, azken **vodka** tragoa irentsi, "Oso atsegina izan da, baina orain joan beharra daukat" xuxurlatu, eta, masailetan muxu bana eman ondoren, agur esan dit Beatricek. Iban Zaldúa

Marinel batek ontzi maketak eginen ditu **vodka** eta whisky botilen barruan, delako botila hustu ondoren. Joseba Sarrionandia

**Vodka** botila hutsa nire izterren artetik hartu eta leihatilatik kanpora jaurti nuen. Aingeru Epaltza

Zruleren tabernara joan zen zuzen-zuzenean, **vodka** botila handi bat erosi, eta etxera eraman zuen. Koro Navarro

- Harry **vodka** martini bat ari da hurrupa txikiz edaten. Oskar Arana

## 4 (neurriekin)

Henne goizean jaiki eta baso bat **vodka** edaten zuela esaten zuten auzokoek. Koro Navarro

Palkinski ostatuan sartu zen kopa bat **vodka** edatera. Jose Morales

Haren bigarren botila **vodka** eskuetan berotzen ari nintzen. Aingeru Epaltza

## 5 baso bat vodka.

Bigarren **vodka** Moskova ibairako bidean. atetik sartu bezain laster bere ondoan esertzeko keinua egin dit, eta **vodka** eskatu du niretzat ere. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**vodka botila** (5); **vodka edaten** (4)

## vokoniari *izond* legeez mintzatuz, Quinto Voconio erromatarrak proposatu zuena.

Lege **Vokoniarra** egin zen garaian, ohiturek artean gordetzen zuten beren jatorrizko araztasuna. Iñaki Iñurrieta

Giza izaeraren zorigaitz bat da legegileak sentimentu naturalen kontrako legeak egin behar izatea: halakoxea izan zen Lege **Vokoniarra**. Iñaki Iñurrieta

Lege **Vokoniarrak** ez zuen uzten emakume bat oinordeko izendatzen, ezta alaba bakarria izanda ere. Iñaki Iñurrieta

Lege **Vokoniarra** emakumeen aberastasun handiegiei aurrea hartzeko egin zen. Iñaki Iñurrieta

## voleibol ik boleibol.

## volt (*orobat voltio*) iz elektrizitate tentsioaren unitatea.

Elektrizitate deskarga txikia behar dute koralek hazteko, 12 **voltekoa**. Berria - Gaiak

Argitasunak gainez egiten duen giro horietako bat, **volten** gehiegizko gastuarekin. Jon Alonso

Parametro ia berdin-berdinak dituzte elektroxokeko makinek [...] eta txerrientzako durduzagailuak: ampere bat, hirurehun **volt**. Xabier Olarra

Ongi hago behe horretan, ez hadila honat inoiz igan, 380 **voltioko** indarra zaukaagu hemen, erne ibili beharra zagok zernahi burdina puska ukituta ez kiskaltzeko. Koldo Izagirre

Rosie Judori ere bizia barkatu zioten, txundidura handiz, 1.500 **voltioko** deskarga elektrikoa bere gorputzetik batera kalterik sortu gabe pasatzen zela ikusi ondoren.

Harkaitz Cano

Langa zuzen jartzean trenbideko goi tentsioko lerroa jo zuen eta 3.000 **volt.-ko** elektrizitate deskarga jaso zuen. Berria - Ekonomia

Barre algara historikoa egin du buruari alde batera eta bestera eraginez, bat-batean bost mila **volteko** antsietate deskarga batek astindu izan balu bezala. Patxi Iturritegi

Erasotutako dorrea [...] Hego Euskal Herria Iparraldearekin lotzen duen elektrizitate linean kokatuta dago, Hernaniko zentraletik Milafrangakora doa, eta 400.000 **volt** garraiatzen ditu. Berria - Euskal Herria

## voltaiko

### 1 arku voltaiko (*orobat arku boltaiko*) potentzial diferentzia bat ezartzen zaien bi elektrodoren artean sortzen den deskarga.

Errezeletan oraindik arku **voltaikozko** lanpara baten erlantz ageri zen, tarteka-marteka keinulari. Joxe Austin Arrieta

Arnasestuka korrika abiatu ziren bata bestetik distantzia berberera zeuden kaleko arku **boltaiko** lasaigarrietarantz. Lopez de Arana

Jaurtitzen zuten distira biziari begira, uste izatekoa zen argindarren batek eguzki printzez egindako arku **voltaiko** bana pizten ziela barrualdean. Karlos Zabala

## voltaje (*orobat boltaje*) iz potentzial elektrikoa, voltetan neurtua.

Hotzikara txipitan durduzatzen zen aldiro, **voltaje** apaleko deskargak. Koldo Izagirre

**Boltaje** handiko transformadoreen zarata eta aulkiaren deskarga baino ez dira entzuten. Harkaitz Cano

Lehenengo itzalekin batera, oso **boltaje** gutxiko bonbillen argi zurbilek hartu zioten txanda eguzkiaren eta ilunabarraren argiari. Jon Muñoz

## voltio ik volt.

## voyeur 1 iz jarrera erotikoetan dauden pertsonen zelatan aritzen den pertsona.

Azken finean, *strip-tease* txiki bateko begirale eta **voyeurrak** baizik ez baitira izan eta batzuetan egingo dute txalo, eta bestetan txistu, guk eskainitako ikuskizunarekin.

Hasier Etxeberria

Hiru **voyeur** istorio datoz azkenik, liburua ixteko, nahiz eta hiru hauek baino gehiago diren voyeurismoarekin zerikusia dutenak. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Autore askoren **voyeur** jarrerak errotariaren eta kardinalaren atzetik jarriko luke narratzailea (eta, narratzailearekin, irakurlea). [Anjel Lertxundi](#)

Baina, gaur egun, bidaia beste edozein produktu bezala kontsumitzen dira, eta eskrupulorik ez da leku pobreetara **voyeur** gisa joateko. [Ana Urkiza](#)

Allen **voyeur** -a. [Berria - Kultura](#)

---

## voyeurgintza iz voyeurismoa.

Leitu berria nuen Quim Monzóren ipuin bat fotokopiatu nuen, "Kalitatea eta kantitatea", **voyeurgintza** eta sedukzio kontuekin zerikusirik bazuena. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

---

## voyeurismo iz voyeuraren portaera.

Emakumezkoaren gorputza gizonezkoaren **voyeurismoaren** objektu bezala erabiltzea. [Josu Zabaleta](#)

Ez zuen zerikusirik sexu-grina asetu nahi izatearekin, **voyeurismo** berezi hori B-rentzat pertsonak pertzibitzeko manera baizik ez baitzen. [Jon Alonso](#)

Hiru voyeur istorio datoz azkenik, liburua ixteko, nahiz eta hiru hauek baino gehiago diren **voyeurismoarekin** zerikusia dutenak. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ikuslearen begiradaren azterketa, haren oinarritzko **voyeurismoaren** asegarrri partzial bezala. [Josu Zabaleta](#)

Irudimenaren emendioa gehituta, ordu erdiz, halako **voyeurismo** suerte batean erauntsi nintzen, ikusmena barik, entzumena bide. [Aingeru Epaltza](#)

---

## vudu iz kristau eta afrikar erlijioen osagaiak biltzen dituen erlijiozko kultura.

1943an Haitira bidaiatu zuen, eta han, bertako kultura ezagutzeari emana, **vudu** zeremonia batean parte hartu zuen. [Berria - Kultura](#)

Lau haizeetara zabalduko zituela hainbat eta hainbat sekretu, berak nire bizitzari buruz zekizkienak; **vudu** -a egingo zuela, pampina baten bihotzean orratz batzuk sartuta, infarto batetik hil nendin. [Joan Mari Irigoien](#)

---

## vuduzale iz vuduaren zalea dena.

Kalonjeak, monjeak, mollahak, **vuduzaleak**, presbiteroak, hierofanteak, prelatuak. [Xabier Olarra](#)

---

## vulgata 1 iz Bibliaren latinezko itzulpena.

Kristo aurreko III-II. mendeetan Alexandriako juduek grezierara egindako itzulpenean [...] eta geroago **Vulgata** -n eginiko latinezko translazioan, bide beretik, *Dominus* itzuli zen. [Xabier Kintana](#)

Lehena, **Vulgatetik** hartua den erran bat da. [Aurelia Arkotxa](#)

Salmoen aipamenetan, **Vulgatako** zenbakikuntza erabili da. [Askoren artean](#)

Horrez gainera badituz Cipriano de Valera-rena, Luterorena, zeina literaturaren ikuspuntutik txarrena baita, eta **Vulgataren** latinezko ale bat. [Juan Garzia](#)

## 2 irud/hed

Gobernu ustelduak mendekotasunaren **vulgatara** berriz jotzeak -munduko sistema ekonomikoaren bizioak salatzen zituzten, beren herrialdeen garapenaren porrotean zuten erantzukizuna hobeto zuzitzeko-, zerikusi handia izan zuen kontzeptu horien sinesgarritasunaren galeran. [Koro Navarro](#)

---